

Laudio, 2022ko apirilaren 13an

Laudiok bere natur eta kultur ondarea lotu ditu 40 kilometro baino gehiagoko ibilbidearekin

- *Laudio Haziko Turismo Planaren barruan dagoen ibilbide horrekin, Udalak herriko ondare aberatsari balioa eman nahi dio, biodibertsitatea eta bertako naturguneak zaintzearen aldeko apustua eginez*
- *Ibilbidetik, bisitariei ibilaldi luzeagoa edo laburrago egiteko aukera ematen dieten bost adar sortzen dira*

Laudioko Udalak Laudio Basabideak aurkeztu du gaur goizean, udalerriko interesguneak lotuko dituen 40 kilometrotik gorako ibilbidea. Ibilbide berde horrekin, Laudioko Udalak herriko ondare natural, kultural eta historikoari balioa eman nahi dio, biodibertsitatea eta Laudioko naturguneak zaintzearen aldeko apustua eginez.

Ibilbide Txikia (PR®) 43,1 kilometroko luzera duen bide zirkularra da, eta herrigunearen eta zenbait landa-eremu periferikoren arteko gunea eta udalerriko gailur nagusiak zeharkatzen ditu, hainbat gune eta puntu interesgarri elkartuz, hala nola Ermualde, Arraño, Larrazabal, Areta edo Larrea. Gainera, ibilbide horretatik abiatzen dira ibilaldia laburtzeko edo luzatzeko aukera ematen duten adarrak; berdegune, baso, hiri-parke eta gailurren arteko ibilbideekin.

- 1. ibilbidea: Lamuza-Areta-Alpitsu-Lamuza
- 2. ibilbidea: Lamuza-Arraño-Larrazabal-San Juan-Lamuza
- 3. ibilbidea: Lamuza-Ermualde-Kamaraka-Goikogane-Isusi-Lamuza
- 4. ibilbidea: Lamuza-Gardea-Pagolar- Olako-Lamuza
- 5. ibilbidea: Lamuza-Latiorro-San Bartolom-Larra-Saldarriaga-Lamuza

Ibilbide osotik, 6,28 km hiri-eremuko hainbat tartetatik igarotzen dira, eta gainerako 36,73 kilometroak landa-eremutik. "Proiektu hau funtsezkoa da Laudioko turismo-eskaintza egituratzeko, txangozaletasun naturalaren eta turismo aktiboaren ikuspegitik. Helburua gure natura- eta landa-inguruneaz gozatzea eta gure udalerrian mendi-ibilien jarduera sustatzea da, Bilbo handiarekin duen hurbiltasunarengatik eta Eskualdearen beraren garapen eta interes turistikoarengatik garatu beharreko potentziala da", adierazi du Ander Larrinaga Hiri Garapeneko zinegotziak.

Udalerria egituratzen duen ardatza

Laudio Basabideak-en bitartez, Udal-administrazioak inguruko natur eta kultur baliabideei balioa ematea ere bilatzen du, herrigunearen eta kultur intereseko eremuen arteko komunikazioak, gerra desberdinen aztarnak, landa-guneak eta horien elementu bereziak eta ibilbideko gailur nagusiak indartuz. Eta hori guztia landa-auzoen aberastasun etnografikoarekin osatzen da. Auzo horietan tokiko arkitektura txikiko elementuak nabarmentzen dira, karobiak, kirikiñauxiak eta baselizak, besteak beste.

"Laudio Basabideak ardatz egituratzaile bizia eta bizitzaz betea da, eta herritarrak gure berdeguneen ezagutzan eta kontserbazioan inplikatzeko du helburu.

Horregatik, proiektua herritar, talde eta elkarte, ikastetxe, enpresa eta abarri irekitako ekimen gisa sortu da, eta datozen urteetan eboluzionatuz joango da”, zinegotziak adierazi duenez.

Ibilbidea etapaka edo zehaztutako bost ibilbideetan zehar egiteko pentsatuta dago, eta familia osoarentzat da egokia, baina baita mendizaleentzat eta esperientzia handia duten pertsonentzat ere, gailurretatik gertu igarotzen delako, eta desnibel handiagoa edo txikiagoa aukeratu daitekeelako.